

Elkarreragingarritasuna

Informazio-sistemen interkonexioa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
Osakun Sailburuordetza
Área de Sanidad y Consumo

DEPARTAMENTO DE SALUD
Viceconsejería de Salud
Dirección de Atención Sanitaria

AURKIBIDEA

ELKARRERAGINGARRITASUN SOZIOSANITARIOA.....1

Zer da elkarreragingarritasuna, eta zertarako balio du?.....2

Zer printzipiok iradokitzen dute Euskadiko elkarreragingarritasunaren garapena?.....3

Zer aukera planteatzen ditu elkarreragingarritasun soziosanitarioak?.....5

Zer erronka ditu elkarreragingarritasun soziosanitarioak?.....6

Zer da elkarreragingarritasunaren etika?.....7

ELKARRERAGINGARRITASUN SOZIOSANITARIOAREN EAEKO EREDUA.....8

Zer elkarreragingarritasun-eredu dago EAEn?.....9

Zer tresna daude elkarreragingarritasunaren gobernantzarako?.....10

Zer jarduera-arlo hartzen ditu barne elkarreragingarritasun soziosanitarioak?.....11

Zer tresna digital daude koordinazio soziosanitariorako?.....12

ERANSKINAK.....15

Nondik abiatzen da eta zergatik hitz egiten da elkarreragingarritasunaz?.....16

Zein dira elkarreragingarritasuna babesten duten arau-erreferentziak?.....18



ELKARRERAGINGARRITASUN SOZIOSANITARIOA

Zer da elkarreragingarritasuna, eta zertarako balio du?

Elkarreragingarritasuna **datuak partekatzeko eta informazioa eta jakintza trukatzeko gaitasuna da**; kasu honetan, **informazio-sistemen artean eta horien prozeduren artean**.


Elkarreragingarritasuna, beraz, beharrezkoa da honako hauetarako:

- Lankidetzarako, garapenerako, integraziorako eta administrazio publikoek zerbitzuak elkarrekin emateko.
- Hainbat politika publiko exekutzeko.
- Hainbat printzipio eta eskubide gauzatzeko.
- Teknologia transferitzeko eta aplikazioak berrerabiltzeko, efizientzia hobea lortze aldera.
- Zerbitzu berriak gaitzen dituzten aplikazioen arteko lankidetzarako.
- Horrek guztiak administrazio elektronikoaren eta informazioaren gizartearen garapena errazten du.



Elkarreragingarritasuna **funtsezko gaitzailea** da zerbitzu soziosanitarioen **eraldaketa digitalerako**, eta arreta efizienteagoa eta koordinatuagoa izatea eta pertsonarengan zentratuta egotea ahalbidetzen du.

Zer printzipiok iradokitzen dute Euskadiko elkarreragingarritasunaren garapena?




Azpiegitura teknologiko segurua eta efizientea eskaintzea, ekosistema soziosanitarioko eragileen arteko **informazio-truke arina** ahalbidetzeko. Hori guztia **arretaren kalitatea hobetzeko, baliabideen erabilera optimizatzeko eta pertsonarengan eta haren beharretan zentratutako esperientzia bermatzeko.**



Euskadin guztiz elkarreragingarria den **ekosistema soziosanitarioa** lortzea, informazioa oztoporik gabe jariatuko duena eta arreta integratua eta koordinatua ahalbidetuko duena. **Zerbitzuak konektatzeko** eta herritar guztientzako **kalitatezko arreta ekitatiboa eta irisgarria** sustatzeko **teknologiaren erabileran erreferentzia** izan nahi dugu.

- **Segurtasuna:** une oro pazienteen eta erabiltzaileen datuen babesa eta informazioaren pribatutasuna bermatzea.
- **Efizientzia:** kalitatezko arreta soziosanitarioa eskaintzeko baliabideak eta prozesuak optimizatzea, denborak eta kostuak murriztuz.
- **Berrikuntza:** elkarreragingarritasuna eta arreta integratua hobetuko duten teknologia eta praktika berrien ikerketa eta garapena sustatzea.
- **Lankidetza:** osasunaren eta gizarte-zerbitzuen sektoreko eragileen artean elkarlanaren eta sinergiaren kultura sustatzea.
- **Gardentasuna:** pazienteekin, erabiltzaileekin eta alderdi interesdun guztiekin komunikazio irekia eta argia izatea.
- **Humanizazioa:** pertsonak arretaren erdigunean jartzea, haien eskubideak, beharrak eta lehentasunak errespetatuz.



Zer aukera planteatzen ditu elkarreragingarritasun soziosanitarioak?

Elkarreragingarritasun soziosanitarioa martxan jartzea behar tekniko bati erantzuteaz haratago doa; izan ere, ateak irekitzen dizkie, baita ere, zainketak emateko modua indartzen eta eraldatzen duten aukera ugari. Jarraian, sistema soziosanitarioan ezartzeak ekar ditzakeen abantaila nagusiak aurkezten dira:

- **Arretaren koordinazioa hobetzea:** Inplikaturako eragileen arteko etengabeko informazio-fluxua errazten du, eta, horri esker, erabakiak arinago har daitezke, arreta integratuagoa eta pertsonalizatuagoa emateaz gainera.
- **Baliabideak optimizatzea:** Datuak partekatzean eta ahaleginen bikoiztasuna murriztean, eskura dauden baliabideak optimiza daitezke eta, honenbestez, efizientzia hobetu eta kostuak murriztu.
- **Pertsonarengan zentratutako arreta:** Erabiltzaileei informazioa eskuratzeko eta arreta-prozesuan aktiboki parte hartzeko aukera ematen die; hala, autonomia faboratzen da eta erabakiak modu informatuan har daitezke.
- **Berrikuntza bultzatzea:** datu elkarreragingarriak eskuragarri egoteak arreta soziosanitarioa hobetu dezaketen teknologia eta konponbide berrien ikerketa eta garapena sustatzen ditu.
- **Datuaren gobernantza:** "Datu bakarraren" ikuspegia indartzen du, eta partekatutako informazioaren sendotasuna, kalitatea eta trazabilitatea ziurtatzen ditu. Hori lagungarria da arreta segurtasun eta koordinazio handiagoz emateko.

Zer erronka ditu elkarreragingarritasun soziosanitarioak?

Elkarreragingarritasun soziosanitarioak aukera ugari ematen dituen arren, hura garatzeak zenbait arrisku eta erronka dakartza, eta horiek identifikatu eta behar bezala kudeatu behar dira. Jarraian, erronka nagusiak zerrendatuko ditugu:

- **Datuen segurtasuna eta pribatutasuna:** Informazio sentikorra trukatzeko, babes-sistema sendoak behar dira, eta datu pertsonalak babesteko araudia zorrotz bete.
- **Konplexutasun teknikoa:** Hainbat sistema integratzea garestia eta konplikatua da batzuetan. Estandar argiak, plangintza ona eta baliabide egokiak eskatzen ditu.
- **Aldaketaren aurreko erresistentzia:** Baliteke kultura- edo antolaketa-oztopoak egotea elkarlanerako modu berriak ezartzeko garaian. Funtsezkoa da prozesu horiei prestakuntzarekin eta komunikazioarekin laguntzea.
- **Mendekotasun teknologikoa:** Elkarreragingarritasuna sistemen funtzionamendu egokiaren araberakoa da. Litekeena da akats teknikoek eragina izatea arretaren jarraitutasunean ez badira behar bezala kudeatzen.
- **Arau-esparru argirik ez egotea:** Ondo definitutako erregulaziorik ez egonez gero, baliteke ziurgabetasuna edo zailtasunak sortzea inplikaturako eragileen artean. Funtsezkoa da jarraibide legal zehatzak izatea.
- **Ikuspegi etikoa:** Legea betetzeaz gain, funtsezkoa da printzipio etikoak betetzea, hala nola autonomia, justizia edo kalterik ez egitea. Pertsonak informatuta egon behar dute eta beren informazioaren erabilerari buruzko erabakietan parte hartu behar dute.

Zer da elkarreragingarritasunaren etika?

Lege-araudiak betetzeaz gain, funtsezkoa da datu-trukearen ikuspegi etikoa kontuan hartzea. **Horrek esan nahi du autonomiaren, ongintzaren, kalterik ez egitearen eta justiziaren printzipioak errespetatu behar direla**, eta ziurtatu egin beharko da informazioaren erabilerak pertsonaren ongizatea sustatzen duela beti eta ez diola kalterik eragiten. Horretarako, **elkarreragingarritasunaren etikak honako printzipio hauei egiten die erreferentzia:**

- **Baimen informatua:** pertsonen beren datuak nola erabiliko diren jakinarazi behar zaie.
- **Datuak minimizatzea:** trukearen helburua betetzeko behar-beharrezkoak diren datuak bakarrik partekatzea, eta garrantzirik ez duen informazioa ez transferitzea.
- **Helburu legitimoa:** helburua pertsonaren edo interes publikoaren onura dela bermatzea.
- **Diskriminaziorik eza:** ziurtatzea datuen trukeak ez dituela talde jakin batzuk diskriminatu ditzaketen joerak iraunaraziko edo areagotuko.
- **Ekitatea sarbidean:** bermatzea datuen trukeak ez diola ezein biztanleria-talderi zerbitzu publikoetara iristeko oztoporik sortzen.



Elkarreragingarritasunaren abiapuntua da segurtasunaren eta datuen babesaren arloko legeak eta erregulazioak bete behar direla; baina legea betetzeaz gain, **beharrezkoa da datu-trukea ikuspegi arduratsu eta etiko batetik zehaztea eta erabiltzea.**



ELKARRERAGINGARRITASUN SOZIOSANITARIOAREN EAEKO EREDUA

Zer elkarreragingarritasun-eredu dago EAEEn?

EAEko eredu soziosanitarioak **sorospen-ikuspegitik arreta integratua lortzea du helburu, egitura instituzionalen, informazio-sistemen eta eskumenen autonomia errespetatuta**. Arreta soziosanitarioa elkarri laguntzen dioten, elkar ulertzen duten eta elkarren arteko konfiantza duten hainbat sistema koordinatzearen emaitza gisa planteatzen da.

Deskribatutako egoerari erantzuteko, **EAEko eredu soziosanitarioak, informazio-sistemen arloan, ikuspegi soziosanitarioa txertatzen du nola historia sozialean hala historia sanitarioan (eta beste informazio-sistema sektorial batzuetan, hala nola hezkuntzan), eta horien arteko elkarreragingarritasunaren bidez egiten du**, profesionalen baterako lan-dinamika koordinatuari laguntze aldera. Horrela, elkarreragingarritasuna zeharkako elementua da koordinazio soziosanitarioa garatzeko.



Elkarreragingarritasunaren EAEko ereduaren helburua ez da sistemak bateratzea, horien arteko elkarrizketa bultzatzea baizik. Entitateei ahalbidetzea bakoitzak bere autonomiari eustea eta, aldi berean, gainerakoekin efikaziaz lan egitea, benetan integratuta dagoen arreta bermatuz.

Zer tresna daude elkarreragingarritasunaren gobernantzarako?

Elkarreragingarritasunaren erronkei aurre egiteko, EAEko administrazio publikoek **gobernantza-tresna** hauek izan dituzte:

- **Euskadiko Historia Soziosanitario Elektronikoa (EHSSE)** baliabide soziosanitario gisa hartzen da, eta, beraz, baliabide soziosanitarioen katalogoan jasota dago, zehazki, baliabide soziosanitario instrumental gisa.
- Zerbitzu teknologikoak kontratatzeko eta gauzatzeko, **EJIE - Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte** da bazkide estrategikoa.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak **Elkarreragingarritasunerako Bulego Teknikoa** dauka, Osasun Saileko Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzari atxikia, elkarreragingarritasunari laguntza estrategikoa eta funtzionala emateko.
- **Elkarreragingarritasun Soziosanitarioko Batzorde Teknikoa** gobernantza-organo gorena da. Arreta soziosanitarioan parte hartzen duen erakunde guztiek, ordezkari funtzional batek eta ordezkari teknologiko batek osatzen dute.

Zer jarduera-arlo barne hartzen ditu elkarreragingarritasun soziosanitarioak?

Elkarreragingarritasuna koordinazio soziosanitarioaren garapenean aplikatzen ari da edo aplikatuko da honako **jardun-arlo** hauetan, **erabilera-kasuetan oinarrituta**:



Koordinazio soziosanitarioa
lehen mailako arretan



Ikuspegi soziosanitarioa
sustatzea etxeko arretan



Arreta goiztiarreko arreta
pertsonalizatuko plan
bakarraren kudeaketa
partekatua



Mendekotasunaren eta
desgaitasunaren
balorazioaren
koordinazioaren bilakaera



Kronikotasuna eta
mendekotasuna ikuspegi
integraletik



Landa-eremurako
laguntza-eredu berria



Indarkeria matxista duten
familia-testuinguruetan bizi
diren pertsonen arreta



Gaixotasun
neurodegeneratiboen eta
neuromuscularren
esparruan arreta integratua
garatzea

Zer tresna digital daude koordinazio soziosanitariorako?

Europako finantzaketak benetako laguntza eman dio EAEko administrazioek **elkarreragingarritasuna garatzeko** egin duten apustuari, **eta honako tresna hauetan zehaztu da:**



Euskadiko atari
soziosanitarioa: Komunitate-
eremua



Kasu soziosanitarioen
kudeatzailea

1 Euskadiko atari soziosanitarioa: Komunitate-eremua

Elkarreragingarritasuna antolakuntzaren ikuspegitik sustatzeko, komunitate birtualen espazio baten aldeko apustua egiten da, erakundearteko eta erakunde barruko koordinazioa erraztuko duena eta talde soziosanitarioen elkarlanari begira dagoena.

Gune hori Euskadiko atari soziosanitarioa deritzon hezurmamitzen da. Atari hori [webgune publiko](#) batek eta [eremu pribatu](#) batek osatzen dute, zeinetara sartzeko erregistroa egin behar baita.

Eremu pribatua lankidetzarako gune bat da, Eusko Jaurlaritzaren sistemen arkitekturan oinarritua, plataforma **seguru eta pertsonalizatua** eskaintzen duena, eta **koordinazioa, informazio espezializaturako irispidea eta gobernantza soziosanitarioan inplikaturako eragileen arteko lankidetzak aktiboak** sustatzen ditu.

Komunitate-eremuaren helburua, beraz, honako hau da:

- sistemen arteko eta sistemaren barruko koordinazioaren garapena erraztuko duen **tresna digital bat ematea**;
- lan bateratu eta koordinatuak dakarren **kultura-aldaketa hori zabaltzea eta hedatzea**;
- eta koordinazio soziosanitarioa **ebaluatzeko analisi estatistikoa** bat egin ahal izatea.



Komunitate-eremua **espazio birtual mugatua da**, sistema soziosanitarioko profesional, erakunde eta eragileek soilik erabiltzekoa, eta **koordinazioa eta lan partekatua** sustatzen ditu.

2 Kasu soziosanitarioen kudeatzailea

Kasuen kudeatzaileak **aukera ematen du premia soziosanitarioak dituzten pertsonei sorospenari buruzko informazioa trukatzeko**. Beharrezkoak diren eta erabilgarri dauden zerbitzuetara deiak egiteko nodoan oinarritzen da, eta kasu bat irekitzen denetik ixten den arte behar bezala aurrera egiteko funtzionaltasuna ematen du.

Inplikaturako arlo bakoitzari buruzko informazio asistentziala (soziala, sanitarioa, hezkuntza, etab.) sistema bakoitzaren administrazio eskudunaren erantzukizuna da, eta nodoak eta kasuen kudeatzaileak ez dute jarduera hori bere azpiegiturretan biltegitratzen.

Kasuen kudeatzaileak, arreta soziosanitarioan parte hartzen duten informazio-sistemekin integratuta, beharrezkoa den informazio-trukea eta koordinazioa bermatzeko funtzionaltasuna inplementatzen ditu.

Ondoren, gauzatzen ari diren **kasuak** aurkezten dira eta horiei beste batzuk gehituko zaizkie:

- Interkontsulta soziosanitarioa
- Arreta goiztiarraren balorazioa
- Mendekotasunaren eta desgaitasunaren balorazioa
- Telelaguntzaren balorazioa



Bere lana **informazio-trukea modu funtzionalean antolatzea** da, informazio banatuko eredu federatu batean, eta **erakunde bakoitzaren autonomia errespetatuta**.



ERANSKINAK

Nondik abiatzen da eta zergatik hitz egiten da elkarreragingarritasunaz?

EHSSE proiektio estrategiko handiena duen proiektuetako bat da, eta hainbat sorospen-eremu eta -mailatako profesional askok parte hartzen dutelako nabarmentzen da.

Proiektu honen abiapuntua beste ikerketa-proiektu bat da, «Informazio-sistema soziosanitarioen elkarreragingarritasuna. Adostutako tresna bat hautatzea» izenekoa. Bertan, **InterRAI Contact Assessment (CA)** tresna hautatzen da etorkizuneko EHSSeren ardatz izateko, informazio soziosanitario komun eta egiaztatua lortzeko gaitasunean eta arreta-plan indibidualizatuak osatzeko ahalmenean oinarrituta.

Dena den, 5 urtez hedapen-lan handia egin ondoren, hartze-maila ez da gutxieneko bideragarritasunera iristen, eta ondorio argi bat ateratzen da: **profesionalek kanpoko sistema bat izango balitz bezala bizi dute tresna berria, informazioa eta denbora bikoiztera behartzen dituen**a, beren ohiko informazio-sistemetan egiten dutenaz gain.

Azken urteotan ikasitakoak **ondorioztatzera garamatza elkarrekin konektatu behar direla** profesionalek egunero erabiltzen dituzten **informazio-sistema korporatiboak**, informazioa partekatzeko, modu koordinatuan lan egiteko informazioa helburuarekin.



Elgarreragingarritasunaz ari garenean, garapen teknologikoa ahalbidetzen duen tresna batez ari gara, sistemen arteko informazio-trukea gaitzeko eta, modu horretan, koordinazio soziosanitarioa errazteko.



Historia Soziosanitarioaren Proiektuak **Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM) finantzaketa** izan du, 22. osagaiaren barruan "Zainketen ekonomiarako talka-plana eta gizarteratze politikak indartzea", C22.l1 inbertsio-lerroan (Iraupen luzeko laguntza- eta zaintza-plana: desinstituzionalizazioa, ekipamenduak eta teknologia).

Bizitza Beterako Laguntzen Zuzendaritzak (Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila) SEM funtsei aurkeztutako eta Gizarte Eskubideen Ministerioaren eta 2030 Agendaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko lankidetza-hitza armenean jasotako EHSS Eren 11. proiektuari erantzuten dio.

Europako finantzaketak benetako laguntza eman dio EAEko administrazioek **elkarreragingarritasuna garatzeko** egin duten apustuari, **eta hainbat tresnatan zehaztu da.**

Zein dira elkarreragingarritasuna babesten duten arau-erreferentziak?

Honako arau hauek osatzen dute administrazioen arteko datu-trukearen legezko erreferentzia-esparrua:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena [28. artikulua].
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena [155. artikulua].
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa [azken xedapenetako 12.ak 39/2015 Legearen 28. artikulua aldatzen du].
- 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena.
- Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala: Bitartekaritza-protokoloen elkarreragingarritasunerako arau teknikoa.
- Segurtasun Eskema Nazionala.

